

Zer gertatzen zaigu ekialdeko komunismoarekin?

Egunero datoz berriak, berriago eta sineskaitzagoak: Lituaniatik, Alemaniatic, Kosovotik, Armeniatik. Ezin dira sinestu. Baina sinestu nahi ezak ez ditu kanbiatzen gauzak.


‘Zer ari da gertatzen? Ezer ez. Ustelduta zegoela. Gordin-gordin esan egin behar da: eredu batek arras porrot egin du. Terminoaren gogortasun osoarekin ulertu behar da hori: eredu «komunista» (sobietarra), klase zuzendatuentzat ezeez, klase pribilegiatu zuzendarientzat berentzat, ezin gehiago jasandakoa gertatu da. Soportezinezko sistema bat. Ez ukittu eta erreformatu eta piska bat aldatu, ezpada baztertu egin beharrezko sistema bat, orpotik.

Gutziz da ohargarria hori, zentzu positiboan zein negatiboan: sistemak bere barrutik amore eman du, ez kanpotik eta ez oinarri herritarretik presio berezirik egon gabe oraintxe. Hori oso positiboa da, batetik. Hori ikaragarria da, bestetik, eta horrelaxe ikusi behar da hori, errealismoarekin, azpian ezkutatzen dituen tragedia humano guztiekin.

Telebistan ikusi ahal izaten ditugu irudiak: nekazarien esklaberia Polonian, mehatzarien lan baldintza beltzak Sobiet Batasunean, Psikiatrikoen hespilduak disidenteak, kalean egurka elkar hiltzen errumiar-hungariarrak, etab. Ez dira mende honetako irudiak.

Halere errazena, zer gertatzen den, esatea da. Zailagoa, guzti hori zergatik ari den oraintxe, eta modu horretantxe, gertatzen. Iruditzen zait, gainera, inork ez dakiela oso garbi. Arrazoi desberdin asko ematen da eta denek balio dute zalantza gabe. Eta halere ez dira iristen esplikatzera. Fenomenua bera oso konplexua da eta analisisa ezin izan sinplea.

Derrigor sinplifikatuz, ordea, eta hasteko:



JOXE AZURMENDI
(Pentsalaria)

Ama Errusia Santuari astunegia bilakatu zaio bere Inperioa. Ez da ahaztu behar: sozialismo hau proiektu inperial baten oinarrien gainean eraiki da. Errusiak egin behar zuen. Eta Errusiak ezin izan dio zamari eutsi. Jarraitzeko: Inperioan bildutako herriek, nazioek, Estatuak, ez «internazionalismoan» beren buruak anaikorki libre eta ez «sozialismoan» solidarioki ekinkor ikusi dituzte nonbait. Paralerro historikorik ez dago. Erroman baino askoz gutxiago, kasik Alesander Handiaren Inperioan bezain gutxi, lortu da herri desberdinen koherentziarik eta elkartasunik paradoxalki «internazionalismoaren» Inperioa izan behar zuen honetan. Pusketa faltuka osatutako Frankenstein bat, horrezko historia baterako.

Erraldoia puskatu duena erabateko frakasia izan da, fronte guztietan. Sistema bat, eskaparateak bakarrik dizdiratsu ederrak, ekonomikoki ere inhumanoa azken finean, kon-

tzeptuan behintzat alderdi hoberenak hortxe eduki arren.

Lehen eskuindarrak izaten omen ziren, hori dena salatzen zutenak (eta egia da: «ezker» avestruz batek askotan egin du ridikulia holakoetan): orain, ordea, beraien bozeramaileak eta esatariak dira, guzti hori publikoki salatzen dutenak. Sobiet Batasuneko enbaxadaria Parisen adibidez. Eta, hemen gure artean, ezkertiar batzuek (numantinoak edo: «leialak azkeneraino!», edo hobeto: «despistatuak azkeneraino») zein aitzakia asmatu ezin asmatu duten artean, eta beste batzuk burua non sartu ez dakitenean, listoenak salto batekin salbatu dira: hondora doan untzitik sozialismo «demokratikora» eta «humanismora» egin dute ipur-jauzi. Izan ere, orain gertatzen da, lehengo erradikalo eta ortodoxo horiek orain irakatsi nahi digutenez, sozialismo «errealean» sozialismorik ez omen zegoela. Baina lehen, hemen horrelakorik salatzen zuten bakarrak, ezkerrean, sozialista «humanista» abertzale batzuk eta trotskystak ziren. Punto. Eta ezkertiar «ofizialek» erotzat jotzen zituzten: gehi, burgestzat lehenengoak (Txillardegia, etab.) eta traidoretzat bigarrenak.

Hemengo historia horixe izan da. Lehen horixe zen eta orain horixe da. Kasik ekialdeko eboluzio mirarizkook bezaik ulerkaitzak, hemengo «ezkertiar» batzuen eboluzio tximistazkoak dira. Egiaren eta arrazoiaren monopolioa sekula galdu gabe, hori bai.

Ekialdean zer gertatzen den, analistek oraindik denbora luze jarraitu beharko dute lanean argitzeko. Gertatu dena egunoro ikusten bait dugu: ezin esplikatu dugu, halere, han gertatzen ari dena zer den zehatz-mehatz eta zergatixe. Garbiago, guri hemen gertatzen zaigun lana, dago: sozialismoa berpentsatu. Sozialismo berri bat pentsatu.